

Politikari, behartuta

[Egile ezezaguna]

Berria, 2004-10-05: X.

Euskal Herriarekiko engaiamenduak eraman zuen Martin Ugalde politikan sartzeraz. Leizaolaren Eusko Jaurlaritzako kontseilari izan zen, eta Euskarazko Arazoetarako zuzendari, Garaikoetxearen gobernuan.

Abertzaletasunak bultzatuta sartu zen politikan Martin Ugalde, ez berezko bokazioa zuelako. Askotan aipatu izan zuen, umetan, Andoainen, "batzokia zutela eliza eta Sabino Arana santua". Aitona jeltzalea eta aita EAJko zinegotzi zituen. Etxetik zetorkion jeltzaletasuna. Baina lan politikoa Caracasen hasi zuen, 1947an. Hango Euskal Etxean atera zuen EAJko txartela. Euskal Etxearen babesean Eusko Gaztedi taldea sortu zuen. Talde horrek Euskal Herriko EGIrekin ez zuen zerikusirik, eta, berez, euskara, mendi irteerak, kirol saioak eta beste antolatze taldea zen. Baina ez zen horretara bakarrik mugatzen: aberriaren aldeko lanean bazuen zereginik eta baita erresistentzian lan egiten zutenei laguntzen ere.

Geroago Euskal Etxeko lehendakari lanetan hasi zen, postu politikoagoa inondik ere. Azken finean, nolabait, Euskal Herriaren ordezkari zen Venezuelako agintarien aurrean. Gainera, Caracasko Euskal Etxea Hego Amerikako garrantzitsuena zen, eta horrek pisu handiagoa ematen zion lehendakari lanari. EAJko Hego Amerikako ordezkari izendatu zuten berehalaxe.

Jose Antonio Agirre lehendakariak Venezuelara egin zituen bisita ofizialen antolatzaile izan zen Ugalde. Lehendakaria hil zenean, 1960an, Ugalde arduratu zen venezuelarren doluminei erantzun ofiziala emateaz.

Baina benetako ardura politikoa Euskal Herrira itzultzean hartuko du, 1969an. Itzulerarako baimenaren zain bi urte egon zen Ugalde, emaztea eta seme-alabak dagoeneko Irunen zirela. Baldintza bakarra jarri zioten: politika kontuetan ez sartzea. Baina badira bete ezinezko gauzak. Iritsi eta gutxira, baina, *Alderdi* EAJren aldizkari klandestinoaren ardura hartu zuen. Juan Ajuriagerraren eskutik iritsi zitzaion *Alderdi* zuzentzeko eskaintza, eta, era berean, politikari jeltzale beraren ahotik jaso zuen Leizaola lehendakariaren kontseilari izateko eskaera. Jose Rezola lehendakariordearen hutsunea betetzeko deitu zuten. 1972. urtea zen. Alderdiaren barruan, hala ere, batzuek ez zuten ondo ikusi Ugalderekin izendapena, izan ere kritikoa eta independente izatearen fama zuen.

Leizaolarekin Baionan bildu zen lehen aldiz eta *interior*-eko lana egiteko eskatu zion lehendakariak; alegia, Hegoaldean harremanak eta bilerak egitea klandestinitatean mugitzen ziren alderdi politiko, sindikatu eta erakundeekin. Alderdiaren ordezkari ere bazen erbesteko Eusko Jaurlaritza hartan. Hurrengo urtean, 1973an, Carrero Blanco hil baino hilabete lehenago, Poliziak, atxilotu eta ziegatik pasatu ondoren, Hendaiako mugan

jarri zuen. Donibane Lohizunen jarri zen bizitzen. Orduan ezagutu zituen Peixoto, Argala, Pertur, Santi Brouard eta beste.

Abertzaleen arteko batasuna amets

Franco hiltzean, Hegoaldera egingo du. Eta orduantxe utziko du kontseilari lana. Behin diktadura bukatuta, politikarekiko konpromisoa uzteko moduan ikusiko du bere burua, eta kazetari eta idazle lanari lotuko zaio. Carlos Garaikoetxeak berekin eramango du, baina, EAeko Gobernura euskara sustatzeko arduradun gisa. 1985ean, EAJren haustura bazetorrela sumatuta, utzi egin zuen postua. Ugalde inoiz ez zen izan hausturazale, baina bere jarrera kritikoak alderdiaren alde ofizialera baino gehiago Garaikoetxearen aldera eramán zuen, eta EAn sartu zen. Ugaldek esana da berarentzat traumatikoa izan zela haustura, eta baita berrogei urteren ondoren EAJko militante izateari uztea ere.

Kritiko, independente eta zubigile izan zen Ugalde bai politikan bai gainerako esparruetan. Lizarra-Garazi ituna ilusio handiz bizi izan zuen. Denbora gutxirako, baina hortxe ikusi zuen bere amets politikoa gauzatua: alderdi abertzaleen arteko batasuna. Bere azkenetako artikulua batean (*Egunkaria*, 1999ko ekainaren 14a) zera idatzi zuen: "Karlistetatik abiatu, Sabin eta Luis Aranarekin herri honetan Euskadi berria lehertzen da; Agirrek irekitzen du aro politiko berri bat; zentzu ernegarria duen guda ideologikoan hiltzen dira gudariak banaka, ez kolektiboki; sinbolo berri dira Durango eta Gernika, sinbolo bizi; Ajuriagerrak badu berezia duen zerbait Santoñan; Kanpion eta Irujo nafarrek asko esaten dute, Landaburu berritzaileak ere bai, Monzon klabea da, eta gertuagoxio Arzalluz eta Garaikoetxea, aldi berri eta leiala, noski, eta Santi Brouard berriagoa, eta Argala, Peixoto, hemendik dator haria". Horra Ugalderen testamentu politikoa.